

Nafarroako herri euskaldunetan liburuzainek euskaraz jakitea galdegin dute

Uemak salatu du Etxarri-Aranazko eta Elizondoko liburutegiek ez dutela euskaraz dakiten liburuzainik

ERREDAKZIOA. IRUÑEA

Nafarroako udalherri euskaldunek ez dute ziurtatua liburutegian langile euskaldunak edukitzea. Hala jakinarazi du Uema Udalherri Euskaldunen Mankomunitateak. Udal liburutegietako arduradunek ez dute hizkuntza eskakizunik, Nafarroako administrazioaren eta haren mendeko erakunde autonomoen langileentzat, meritu gisa hartzen dute euskaraz jakitea, baina langileek ez dute derrigorrez euskara maila bat izan beharrik. Horrek ekartzen du herri euskaldunetan gaztelaniaz baino ez dakiten liburuzainak edukitzeko arriskua; hala saltu du Uemak.

Udalherri Euskaldunen Mankomunitateko kide dira, Nafarroan, Bera, Elizondo, Etxarri-Aranatz, Leitza eta Lesaka. Denak, legez, Nafarroako «eremu euskaldunean» daude. Beraz, herri horietan hizkuntza ofiziala dela gogorarazi du mankomunitateak. «Herritar guztiek dute eskubidea, administrazio publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko»; Euskararen Legeak dioena ekarri du gogora Uemak, eta urratzen ari dela ohartarazi.

Etxarri-Aranazko eta Elizondoko adibideak seinlatu ditu adibide gisa. Bi herri horietako liburutegietako arduradunek «ez dute lanpostu horietan aritzeko beharrezko den euskara mailarik», Uemaren esanetan. Mankomunitateko kide diren udalherrietan, herritarren %70 baino gehiago dira euskaldunak. «Euskaldunen tasa are handiagoa da liburutegien erabiltzaile nagusi diren 25 urtez beherakoen artean; %90etik gorakoa da», zehaztu du.

Bilerak gobernuarekin

Horrenbestez, liburutegietako zerbitzuak euskaraz eskaintzeko ezintasunak egoera soziolinguistikoan eragiten duela ondorioztatu du Uemak, eta adierazi du liburuzaintzako hizkuntza eskakizuna ezartzea «beharrezkoa» dela. Mankomunitateak jakinarazi du Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritzari eta Funtzio Publikoko Sailari bilerak eskatu dizkiola, «egoera horri irtenbidea emateko helburuz».